

## Urteko udal aurrekontuak gaur eztabaidatuko dira Plenoan

■ 2003rako 20.293.000 (3.376.413.688 pta) euroko aurrekontu bateratua eztabaidatuko da ■ Plenoak gai bakarra izango du ■ Gaur, arratsaldeko 19:00etan Pleno aretoan.

2003KO Udal aurrekontuak gaurko plenoan eztabaidatuko dira. Udal taldearen proposamenak 20.293.000 euroko aurrekontu bateratua du. Ongintza Patronatuak 5.001.640 euroko aurrekontua du eta Kirol Patronatuak 1.080.687 eurokoa.

### Zenbait datu

Zerbitzu orokorrak (gobernu organoak, administrazio orokorra, Udaltzaingoa eta abar) 2.580.000 euroko aurrekontua du; Hazienda eta ondareak (gestio ekonomikoa eta diru biltzea) 787.893 eurokoa; Hirigintza eta ingurugiroak 1.868.351 euro; Zerbitzu Publikoak (argia, parkeak, ura, hilerra, obra brigada eta abar) 4.896.159 euro; Hezkuntzak (guarderia, ikastetxeen mantenimendua, musika eskola eta abar) 1.424.544 euro; euskerak (euskarra zerbitzua, euskaltegia eta abar), 754.406 euro eta kulturak (kultur etxea, liburutegia, kultura zerbitzua eta abar) 930.184 euro.

Zerbitzu eta alor guztieta inbertsioetan gastatuko dena (obrak) 3.348.286 euro dira; subentzioetan emango dena 3.416.222 euro; pertsonal gastua 4.659.714 euro; bestelako kontratu eta mantenimendua 4.319.477 euro, besteak beste. □



Goien plenoa eta behean inbertsioetako bi: hilerra haunditu eta Lizeagako espaloia zabaldu.

## Aralar alderdi politikoa bihar aurkeztuko dute Hernanin, Biteri kultur etxean

■ Gaur egungo egoerari buelta emateko indarrak biltzen ari direla dio Aralarrek ■ Aurkezpena Iñaki Irazabalbeitia eta Ernesto Merinok egingo dute, bihar 19:30etan.

DATORREN hauteskundeei begira, bihar egingo dute Aralar alderdi politikoaren aurkezpena Hernanin. Kronikara bidalitako prentsa ohar batean Aralarrek dio egoera larrian dagoela "denok amesten dugun askapen nazional eta soziala" eta egoera hori dela soilik "azken aldian

asko ugaritu diren frantziar eta espainiar estatuen eraso neofaxisten ondorio". Ezker Abertzalea krisi estrategiko eta politikoan dagoela dio Aralarrek eta egoera honi buelta emateko indarrak biltzen ari dira, "Ezker Abertzalearen proiektua berriko helburuarekin". Arala-

rrek nabarmentzen du gaur egun gauden ezintasun egoeratik atera eta Lizarra-Garaziko ilusioa berpizteko saiakera egin behar dela.

**Ildo politiko eta ideologikoak**  
Aurkezpena Iñaki Irazabalbeitia eta Ernesto Merino Aralar alderdiko kideek

emango dute, bihar, osteguna, Biterin, 19:30etan. Aurkezpenean Aralarren lehen kongresuan onartutako ildo politiko eta ideologikoak azalduko dituzte eta beste zenbait gaietaz ere ariko dira: Ibarretxeren proposamena, egoera politikoa, datozen hauteskundeak eta abar. □

### Bertso musikatuak gaur Biterin

ARANTXA Cruz eta Joseba Remirez donostiarrek bertsoak kantatuko dituzte gaur Biterin kitarra doinuz lagunduta. Hamairu bertso sail kantatuko dituzte: *Median gora, Euskal Herritik Aparte, Juana Bixenta Olabe, Oraingo neskatzen jazkera, Nigarra begin eta abar*. Kontzertua gaur da arratsaldeko 20:00etan Biteri kultur etxean. □

### ATE JOKA

### Etxebizitza eskubidearen alde manifestazioa bihar

ATE Joka taldeak manifestazioa egingo du bihar Etxebizitza eskubidearen alde eta espekulazioaren kontra. Manifestazioa arratsaldeko 19:00etan irtengo da Gudarien plazatik. □

### FUTBOLA

### Datorren asteburuan hasiko dira partiduak Zubipen jokatzen

ABENDU hasierako uholdeak ezker, ez da futbol partidurik jokatu Zubipen, eta Hernaniko taldeek kanpora irten behar izan dute jokatzen. Txarrena izan da hondarra bota eta uholdeak utzitako zuloak berdintzeko ez dela tajuzko eguraldirik izan oraintsu arte eta ezin izan dute Zubipe jokatzeko moduan jarri. Eguzkiak muturra azaldu du, ordea, eta astelehen eta astearte aritu dira hondarra bota eta berdintzen eta datorren asteburuko partiduak Zubipen izango dira. Igandean Gorengoe taldeak jokatuko du etxean, 16:30etan Turingen kontra. Hernanik etxeko giroa beharrezkoa du arrasto onean sartu eta gora egiteko eta ea etxean jokatzeak jokalariak motibatzen dituen. Gorengoez gain kadete mailako 2 taldeen partiduak eta eskola kirolekoak ere Zubipen jokatuko dira. □

**ALTZUETA**  
TOLARE - SAGARDOTEGIA  
  
Asteartetik Larunbatera irekita  
  
Altzuetako Sagardotegia S.L.  
Osinaga Ausoa, 7 • 20128 Hernani  
Tel./Fax: 943 55 15 02  
e-mail: altzuetasagardotegia.com

**PUTZUETA**  
HARATEGIA - URDAITEGIA  
  
Kardaberaz 39  
Tel: 943 55 27 87  
20120 HERNANI

**GOZOKIAK ROMBER OKINDEGIA**  
  
Karmelo Labaka 6 - behea  
Tel. 943 331 123

**LARRE-GAIN**  
Tolare-  
Sagardotegia  
  
Asteartetik igandera zabalik.  
Ostiral eguerdian enkarguz.  
  
Zatoz sagardo berria edatera!  
  
Sagardo naturala urte osoan botilan salgai


## Elur Txoriko mus txapelketa Bilbao - 'Tturko'k irabazi dute, eta bakarka Miguel Burugainek

■ Otsailaren 6an jokatu ziren finalak, eta sari banaketa otsailaren 8an izan zen  
■ 44garren txapelketa izan da eta guztira 95 lagunek hartu dute parte.

BILBAO eta *Tturkok* irabazi zuten Elur Txoriko mus txapelketa, otsailaren 6an jokatu zen finalean. Bakarka Miguel Burugain izan zen onena.

Sari banaketa otsailaren 8an egin zen, elkarteko urteroko afarian, eta 50 lagun bildu ziren bertara. Sariak lehenengo lau sailkatuei eman zitzazkien. Bi-koteka: 1) Bilbao-*Tturko*, 2) Lapazaran-Arozamena, 3) Antonio-Diego, eta 4) Quijera-Penagarikano. Bakarka: 1) Miguel Burugain, 2) Gorka Bilbao, 3) Joxe Ramon Zubillaga, eta 4) Joxe Ramon Sanz.

Aurten 44garren txapelketa jokatu da, abenduan hasi eta



Behean ezkerretara 'Tturko' eta goian eskubitara Bilbao.

otsaila bitarte, eta jende askok lagun izan dira; binaka 36 hartztu du parte; bakarka 23 bikote. □

## ■ IGERIKETA -JUNIOR ETA PROMESA MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA Hernaniarrek 12 medaila lortu dituzte Legazpin

■ Urrezkoak 3, zilarrezkoak beste 3 eta brontzezko 6 medaila lortu dituzte ■ Hernani Gipuzkoako 4garren gelditu da.

EMAITZA ona lortu dute Hernaniko igerilariek Legazpin, joan den asteburuan. Urrezko 3 dominak Oihane Sanz (50 eta 100 libre) eta Iara Jimenezek (100 bular) lortu dituzte. Zilarrezkoak Iara Jimenezek (50 eta 100 bular) eta Peru Alfarok (200 libre) lortu dituzte eta brontzezkoak Beñat Allur (200 bular), Oihane Sanz (50 bizkar), Peru Alfar (50 bular) eta nesken taldeak 3 (4x50 estiloak, 4x100 libre erreleboak eta 4x50 libreak). Nesken erreleboko taldeen denborak Euskadiko txapelketako minimak jeitxi dituzte eta datorren asteburuan Azpeitian izango dira.

**Lau onenetan**  
Hernaniko taldeak denboraldi



Igeriketako talde osoa denboraldi hasierako argazkian.

ona egin du. Lehen mailara igo eta Gipuzkoako ligan 4garren gelditu da.

Bestalde infantil eta kadeetek ere jokatu zuten euskaldiko txapelketa Gasteizen.

Manel Aizpurua eta Ane Altuna onenen pare aritu ziren. Hemendik aurrera datozen txapelketetan puntuatu eta lehen mailara igotzea du helburu gazteen taldeak ere. □

## Trikitixa eta perkusio kontzertua bihar Biterin

■ Edurne Iturbek joko du trikitixa eta Donato Goienetxek perkusioa ■ Bihar, oste-guna, arratsaldeko 19:00etan Biterin.

EDURNE Iturbe eta Donato Goienetxek kontzertua emango dute bihar Hernanin, Musika Eskolak eta Hezkuntza Batzordeak antolatua. Edurne Iturbe sari ugari jasotako trikitilaria da eta Donato Goienezteke perkusioan katedraduna. Bi musikariekin euskal musika eta munduko beste musikak joko dituzte, trikitixa eta marimba, bongoak, Afrikako danborrak, kriskitinak, kaxoiak, blok templeak eta abar nahastuta. Antolatzailleen hitzetan "sinbiosi bitxia sortzen dute



Donato Goienetxe eta Edurne Iturbe.

instrumentu hauet elkarrekin", duen doinuak joko dituzte. eta entzulea guztiz harrituko Bihar, 19:00etan Biterin. □

## ■ MAHAI TENISA

### Lehen taldeak galdu berriz ere

■ Estatu mailako taldeak 4-0 galdu zuen ■ Liga autonomikoan irabazi eta probintzialean galdu egin du Hernanik.

HERNANI ezinean dabil estatu mailako lehen mailan. Joan den asteburuan Leka Enearen kontra jokatu zuten Kim Pla, Gorka Gereñu eta Zuhaitz Irastorza eta 4-0 galdu zuten. Positiboa Zuhaitz Irastorza jubenilak jokatu izana izan da, maila horretan aritzear eskar-

mentu haundia emango baitio Espanako txapelketarako.

Liga autonomikoan 4-3 irabazi du Hernanik Etxadiren kontra. Liga probintzialean, berriz, galdu egin du Hernanik, aurtengo denboraldian lehenengo, baina, klasifikatuak daude igoera faserako. □



Jubilatu etxean bazkaritan.

## Jubilatu etxeko taberna hil honetan irekiko dute

■ Barra egongo da zabalik eta asteko zenbait egunean jaten ere emango dute ■ Ordutegia: 10:00-21:00.

JUBILATU etxeko taberna itxita dago azken boladan, taberna bera, etxeko garbitasuna eta konsergeritza eramango duen norbait bilatu artean. Dagoeneko egin dute deialdi publikoa eta aukeratu dute tabernari berria ere. Martxoan hasi arteko epea jarri du Ongintza Patronatuak taberna irekitzeko eta datozen egunetan egongo da martxan. Oraingo taberna egongo da zabalik eta asteko egun batzuetan jatenak ere ematekotan dira. Tabernaren ordutegia da goizeko 10:00etatik 21:00etara. Kontratau bost urterako sinatu dute, beste bost urtera luzatzeko aukerarekin. □

## ZERBITZUAK

### ■ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

### ■ FARMAZIAK

- Egunez: Correa Perkaiztegi 8  
☎ 943 551933
- Gauetza: Urbistondo Lasarte. San Francisco 1B  
☎ 943 366567

## IRAGARKI MERKEAK

Gela bat alokatzen da, bulegoko lanak, klase partikularrak edota masajeak emateko. Zentroan. Interesatuek deitu: 943 55 10 92

Neska bat behar da Hernani inguruko jatetxe batean mahaia serbitzeko. Ibilgailua izatea beharrezkoa. Maixabelengatik galdu. Tel.: 943 55 02 40

Aireportuetako hegaldi KONTROLADOREA. AENAREN konbokatoria. Ezinbesteko Diplomatura edo lizenziatura. Ingelesa. ADOZ: 943 44 45 09

AUTOESKOLAKO IRAKASLE. Parorik gabeko lanbidea. Sarrera garrantzitsuak. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

GUARDA FORESTALA. Euskal Herriko parke eta erreserva naturaletan lan egin ezazu. Ezinbesteko: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

BONBEROAK. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan baldintza bikainak. Ezinbesteko: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

TRANSPORTISTA. Transportean ibiltzeko behar den gaitasun tituloa lortu ezazu. ADOZ: 943 44 45 09

ADMINISTRARI AUXILIARRAK. Udaletarako deialdiak. Ezinbesteko: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

UDALTZAIN bezala lan egin ezazu Udaletan. Datozen deialditarako. Ezinbesteko: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

Udal Liburutegietan AUXILIAR. Datozen deialditarako. ADOZ: 943 444509

BANKU eta AURREZKI KUTXAtarako auxiliarrak behar dira. Ezinbesteko: B.U.P. Datozen deialditarako. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

Txofer, elektrizista, kontserje, operario,... Udaletan lan egin ezazu. ADOZ: 943 444509